

## "Tubi" txapeldun Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketan

11. orrialdea

## Oskar Garro, Espainiako Kopako txapelduna MC2 kategorian

Igorreko txirrindulari papalinpikoak 2018an, ebakuntza bat egiteko, itxi ebazan txapelketak eta errehabilitazioaren ostean, oingo denporaldirako ipini da barriro martxan. Errepidera buelta ezin hobea izan dau, Espainiako Kopa irabazita. **11. orrialdea**



## Dimetalen joko daben taldeak iragarri ditu antolakuntzeak

12. orrialdea

# Zeanuri, Areatza eta Zeberioiko jaiak datoz, hurrengo hurrengo

**A**buztuan jai ugari dago ospatzeko eskualdean. Auzoetako, San Bizente, San Adrian, San Justo, San Lorentzo, Andra Mari, San Roke eta San Bartolome ospatuteaz gainera, Zeanuri, Areatza eta Zeberioiko jaiak be badira-ta. Holan, egunez adin guztietarako jarduera ugari antolatu dira herriotan eta gauez, estilo desbardineta kontzertuak egongo dira: Leihotikan, Kilimak, Bones-torm, Hofe, Erdoil eta abar. Honeen aurretik eta ostetik, elektrotxaraga, erromeria eta dj-ek hartuko dabez plazak. **5. eta 7. orrialdeak**



Argazkia: Miren Idigoras.

# Areatzako eta Ubideko alkate barriari alkarrizketak



Bagilaren 17an, Asier Garciak (EH Bildu), Peru Perez de Anuzitari (EH Bildu) pasau eutsan Areatzako aginte makilea; Ubiden oster, Iñaki Beobidek (Ubideko Herri Kandidatura), Zigor Iturriozeri (Ubideko Herri Kandidatura). Areatzan eta Ubiden ordutik alkate barriak diran Perez de Anuzita eta Iturriozegaz egon da BEGITU berbetan. **8. eta 9. orrialdeak**

## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

### Auzitegi Konstituzionala, udalak euskeraz jardutearen kontra

Udaletxeetan euskeraz bakarrik jarduteak, "oreka linguistikoa" eta "toki erakundeetako kideen hizkuntza eskubideak urratzen" dituala ondorioztatu dau epaitegiak. Holan, UEMAK eta Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako protestetara batu dira gurean udal gehienak. **7. orrialdea**



## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

### Aldaketa sakonak Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan

Garagarilaren 23ko hauteskunde orokorretan, asko aldatu zan euskal herriarren boto aukeraketea, Arratian, Ubide eta Zeberion lez. Eskualdean, EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak, 22 botoko alde txikiagaz bada be. Honeek 307 boto gehiago ditue eta EAJk, 450 gitiago. Baina ehunekotan, alderdi espainiarrak dira gehien igon diranak, Sumar izan ezik. **7. orrialdea**



## ARRATIA

### Ordutegi murrizketak osasun zentroetan

Aurtengo udan be, Osakidetzak herri txikietan murrizketak ezarri ditu. Zeberion eta Bedian ez da uda osoan medikurik egongo eta gainontzeko herrietan, Igorren eta Lemoan izan ezik, murrizketak egongo dira. Batez be, mediku zerbitzuan igarriko da eragina. Udal batzuk, hasi dira Osakidetzari kexak bidaltzen, Areatza eta Dima berbarako. Bediako ezker abertzalea be kexau da eta Arratia mailako mozino bat prestatuten dabil EH Bildu. Paziente gehienak Igorrera mobidu beharko diranez, egoera baloretako batzar bat programau da, Olatz Urkiza Igorreko alkatearen esanetan. **7. orrialdea**



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXIX). Kale berbakunea sustatu guran

#### HIKA BITXIKERIAK:

-Hi Marta! Ikusi **dona** ETBko gaurko erreportajea?  
-Bai Miren ikusi **jonat**.  
-XVI. mendean mezak hitanoz egiten zirala!

#### JOANES LEIZARRAGAREN GURE AITA:

Gure Aita zeruetan haizena,  
Sanktifikatza bedi hire izena.  
Etor bedi hire Resuma.  
Egin bedi hire borondatea,  
zeruan bezala lurrean ere.  
Gure eguneko ogia  
iguk egun.  
Eta barka ietzaguk gure bekatuak,  
nola guk ere ofensatu gaituztener  
barkatzen baitrauegu.  
Eta ez gaitzala sar erazi tentazionetan,  
baina delibra gaitzak gaitzetik.  
Amen.

## ERETXIA

### Monopolioa vs autogestioa



**AGER BARRAGAN**  
Kazetaria eta musikaria

**N**eguko egun gris eta euri-tsu gehienak egunerokotasuneko monotonian sartuta egon eta gero, udabarria hasten danean eta eguraldi onari esker, gure astegoienek dinamika diferenteak hartzean dabez uda ailegetan dabilanean. Gure denpora librea ekintza diferenteak egiten pasetan dogu eta ekintza desbardin horreen artean musika kontzertu eta jaialdietara joatea oso ohikoa da.

Uda osoan zehar, mota guztietako jaialdi eta kontzertuen aukerea eskaintzen dabe sektoreko alkarte eta enpresek, ekitaldi handi guztien atzean gehien bat beti enpresa berberak dagozako. Irabazi asmo bako alkarte eta taldeek antolatuten dabezan ekitaldi txikiak be egon badagoz, baia ekitaldi horreek bigarren plano baten geratzen dira populazioaren porzentaje oso handi batentzat.

Oso nabaria da estatu mailan, gaur egun, enpresa batzuek daukiezala ekitaldi masibo eta horreekaz lotuta dagozan azpi-ekitaldien gaineko poderea eta sektoreko monopolioa. Urteetan zehar indar asko hartu dabe enpresa horreek, baina indar hori eurak bakarrik dagozalako ete da? Ze, ekitaldi txiki eta autogestioauk aitatu dodaz, baina zergaiti bategaitik edo besteagaitik, ekitaldi txiki horreetan be parte hartzean dabe monopolioa daukien enpresa horreek, batzuetan produkziozko hariren bat mobiduz eta beste batzuetan euren babesean dagozan artistek emoten dabezalako kontzertuak.

Poderedun enpresa horreek persona-talde erraldoiak eukiten dabez eurentzat eta eurak antolatuten dabezan ekitaldi eta jaialditerako lanean. Produkzioan, kontratazioan, komunikazioan, diseinuan eta beste hainbat arlotan profesionalak eta oso efizienteak diran langileek errotan dabez ekitaldi guzti horreek aurrera.

Autogestioz edo *Do It Yourself* filosofiaz antolatutako emonaldi, kontzertu eta jaialdiek gero eta lan hobegoa egin, eta gero eta indar eta garrantzia handiagoa hartuten joan arren, zorixarrez, ezin dabe ekintza masibo horreen kontra egin eta proiektua alde batera ixten amaituten dabe. Holango jaialditxoak gehien bat irabazi asmorik ez daukiezan boluntario eta bolondresak errotan dabez aurrera, azken baten, euren inguruko eszena musikalaria bizia emon gura deusielako, baina zailtasunak ugariak izaten dira holango proiektu autogestioauk bat aurrera erotan ahal izateko.

Batez be musika alternatiboaren konsumitzaile moduan, *mainstream*ean oinarrituta dagozan ekitaldietara joatea baino, askoz atseginagoa egiten jata *underground* eszena musikalean antolatutako kontzertu edo jaialdietara joatea. Filosofia ekitaldiboa eta inklusiboa da nagusi ekitaldi horreetan eta maila lokalean laguntzen saiatzen dira antolatzaileak. Enpresa handiek antolatutako ekitaldietan barriz, munduko artista handienak gure aurrean egon arren, gehienetan langileen prekarizazioa eta ondoreza izaten da nagusi.

Badakit jaialdi handiak oso erakargarriak izaten dirala eta konsumitzaile moduan askok bakarrik euren onurea eta gozamen bilatuten dabela, baina kontuan euki behar dogu gure inguruan dagoan mobimentu musikala eta multinazionalen erruz mobimentu horreek jasoten dabezan kalteak, faktore horreek askotan bigarren plano horretako ekitaldi eta jaialdiek hiltzen dabezalako.



## LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

ChatGPT eta  
Oppenheimer  
unea

**G**aragarrilean estreinau da Christopher Nolan zuzendari britaniarraren azken filma, *Oppenheimer*. Robert Oppenheimer fisikari estatubatuarra bonba atomikoaren aita izan zan, Manhattan Proiektuaren buruetako bat. New Mexicoko basamortuan historiako lehen bonba nuklerrak eztanda egin eban unean, 1945eko garagarriaren 16an, Oppenheimerri izkribu hindu zahar bateko esaldi bat etorri omen jakon gogora: "Oin heriotzea bihurtu naz, munduen suntsitzaile". Aurrerabidea suntsitzailea izan daiteke eta horregatik etika arazo larriak sor daitezke. Oppenheimerrek energia eta arma nuklearren gainean murriztapen zorrotzak ezartzeko deia egin eban. Etikak eta aurrerabide teknologikoek talka egiten dabenean ebatzi ondo hausnartuak hartu behar

dira, asmakizunak ezin dira-ta desasmatu. Une kritiko horri Oppenheimer unea deitzean jako.

Egun adimen artifizial sortzaileak (*generative artificial intelligence*) bere Oppenheimer unea bizi dau. Sortzean dabizana tresnak ikaragarriak dira. Onerako eta txarrerako. Arma nuklearrak bezain suntsitzaileak ez diran arren, munduari astindu on bat emoteko modukoak dira. Izan be, astindua jada gertatzen dabil. ChatGPT, GPT-4, Google Bard, Google Deepmind eta Llama 2 bezalako tresnen erabilpena eta garapena arautzen ez badogu, gizakion etorkizuna iluna izango da. Adimen artifizialak gizakiok errendundante bihurtu gaitezke. Baina epe motzean kezka bestelakoa da. Lan merkadua, hezkuntza, politika, demokrazia eta beste edozein arlo hankazgora jartzeko zorian dagoz. Atzen hogei urteotan internetak eta telefono mobikorrak aldaketa handiak bultzatu dabez gizartean, ekonomian eta politikan. Baina aldaketok ez dira ezer adimen artifizialak ekar litzakengaz konparauz. Galdera da zelan arautu, zelan murriztu adimen artifizialaren erabilpena? Agian ez da posible, asmatutakoa desasmatzea ezinezkoa dan bezala.

## ZERTZEAN



KARLOS ARETXABALETA

## Pour Femme

**L**arunbat gaua heldu da, eta gure bikoteak ez du kale egin. Bietako bat ohean etzanda dago, bero-bero, bestearen esperoan. Besteak, komuneko ispiluaren aurrean dagoenak, ordea, pazientzia apur bat eskatu dio, oraindik prest ez dagoela; izan ere, erritualak maite ditu poxpolintukua, bereziki asteburuetan bere bikotearekin parteka ditzakeen horiek.

Larunbatetan ez da etxean inor ageri, —ez gurasorik, ez neba-arrebarik, ez txakurrik...— denek alde egiten dute, bada, eurena da momentua, tenplua, oso-osorik. Gaur arratsaldean, gure protagonista pinpirinak erosketak batzuk egin behar izan ditu. Errimela amaitu zaio, eta ez dio amari susmo txarrik hartzeko betarik eman nahi. Aurrekoan ozta-ozta libratu zen, izan ere, bere amari gehien gustatzen zaion ezpainetako-barra esku artean apurtu zitzaion eta ez zuen astelehenera arte berri bat erosteko aukerarik izan. Orduantxe konturatu zen zein garestia den norbere burua apaintzea; berrogeita bost euro ezpain-barra ziztrin batek! Harrapazank! Tira, zikintzen ez duten horietakoa zen, baina... Geroztik etxe ondoan dagoen txinatar denda batean erosten ditu errituletarako behar dituen guztiak. Hori bai, lurrinaren tentaldiari ezin izaten dio eutsi, eta ahal duen bakoitzean amari Dolce & Gabbana *Pour Femmeren* tantakada batzuk lapurtu eta eskumuturrean zabaltzen ditu.

Bere bikoteak ere ehun euroan dagoen lurrin sarkor hori maite du; ez, ordea, garestia delako, baizik eta bestelako ukitua ematen dielako euren arteko sexu-harremanei.

Haatik, gaur egun berezia denez gero —bikotearen urtebetetzea—, ohi baino denbora gehiago hartzen dabil gure pinpirina bere burua apaintzen. Azkazalak ondo egitea ez da erraza gero, eta, onerako zein txarrerako, nahiko perfekzionista da gure protagonista.

Bikotea dagoeneko bero-bero dago aste barruan aukera gutxi izan ohi dutelako patxadazko ziri-mirriak egiteko, eta, behin larunbata helduta, txortan egiteko gogoa besterik ez du: *Ni preeliminaries, ni hostias!* Esaten dio maiz. Horregatik, bada, bera bakarrik bere buruari plazerra ematen hasi da jada ohe gainean. Astiro-astiro, presarik gabe; ea alde aurretik hustuko den, eta gero ez duen behar bezala zamalkatuko.

Kito. Badago. Komunekoak Silkepil markako orria bernetatik pasatu berri du hauek leun-leun gera daitezten. Inoiz gertatu izan zaio ile gogorren erruz setazko media finetan urratuak egin izana. Ez, hori ez da bere estiloa. Lehoiabar koloreko minigona piti bat igo du, belaunetatik gora, noski, eta gaurkoan goiko parterako tirantedun kamiseta bizia aukeratu du. Kitzikatu nahi du bikotea. Egurrezko belarritako handiak jarri, pintzel eta hautsekin azken errepassoa eman bere azal arrailduari eta ja. Arnasa sakon hartu du gure pinpirinak, izan ere, gaurkoan ere urduri nabari zaio. Dena bikain egon beharra dago kosta ala kosta.

Bat-batean, atea zabaldu du, bere hanka finekin gorazko keinua egin eta hurrengo bota dio ohean bere zain —eta bere alua biziki igurzten ari dela— dagoen neskatoari:

—Kaixo Aiora, gaurkoan gaiztoa izan nahi?

—Zatoz ona Lier! Neuk emango dizut ba zuk gehien maite duzun hori!

## BEGI TXINDORRA

**T**arte hau BEGITUren Argazki Lehiaketan parte hartzean dabene argazkiakaz beteten dogu udan, baina gogoratu atal hau zabalik dagoala edonok argazkia eta testua bialdu dagian. Eta oingoan horixe pasau da. Dimatik argazki hau eta Ibon Izaren bertsoa heldu jaku. Geurearen alde egiten dauan proiektu bat danean, poztu egiten gara gainera! Zorte on Zazpi Haizetarako Aitziber eta Amaiori euen ibilbide barrian.

Apaltasunez idatzi gura genituzke lehen hizkiak denda txiki bat jantzi behar du lehen orduko eguzkiak zoli, astindu nahi genituzke kanpoak eta azpiak zuentzat dira gure jakiak edabe edo saskiak arroz, olio, txakoli, saltsak turroiak eta eztiak bagatoz, entzun ilusioz, gaur gure kantu amestiek... Jakin dezala Arratiako bailaran jende guztiak Zazpi Haizetara zabaltzen gatz maitasunezko izpiak.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredoriak@gmail.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Ikalgaitza Zerbitzuak 901  
R.P.S. 31/06

AREATZA

## Areatza astebeteko jai giroan murgilduko da abuztuaren 23tik aurrera

Areatzako jaiak, hilaren 23an hasiko dira eta barriro martxan dagoan Laminetxe Gaztetxeko kideena izango da txupinazoa botateko zein jaien agurra egiteko ardura. Ohiturea danez, aurtengo jaietan be ez dira faltauko txotxongiloak, erraldoiak, buruhandiak, txistulariak, gaiteroak, Areatzako Banda, salbea eta zelan ez, danborradak.

### Erredakzioa

Egunez, ekintza ugari antolatu dira adin guztietarako. Musikearen aldetik, elektrotxaranga eta kalejirak egongo dira. Lehiaketa gastronomikoak be egongo dira, paella, tortilla eta makailaoa hain zuzen be. Kirolak be izango dau bere lekua, pala eta eskupeleta partiduak jokatuteaz gainera, herri-kirol erakustaldia egingo da. Umeentzako barriz, puzgarriak eta bits jaia egongo dira astelehenean eta hirugarren adinekoentzako, musikea eta kopautxo berezia barikuan.

Gauetz oster, XXVIII. Playback Lehiaketeaz gain, kontzertu, erromeria eta dj-ak izango dira nagusi: Zutik, Chuchin Ibañez & Garibaldi Band, DJ Feli, Leihotikan, Kilimak, MJ Potota, MJ GBM, Zazpizar, Areatzako Banda eta Itziar Yagüe pasauko dira oholtzatik. Gainera, kontzertu sorpresa bat be egongo da gaztetxean.

### Abuztuak 23, eguaztena

14:00etan, txupinazoa. Jarraian, txotxongiloakaz, erraldoi eta buruhandiakaz, Areatzako Bandagaz, Areatzako txistulariakaz eta Bizkaiko Gaiteroakaz kalejire. 18:00etan, Skapaie elektrotxaranga. 20:00etan, Salbe herrikoa. 22:00etan, erromeria Zutik taldeagaz. 23:30ean, XXVIII. Playback Lehiaketea. Jarraian, erromeria Zutik taldeagaz.

### Abuztuak 24, eguena

11:30ean, txistularien kalejire. 12:00etan, meza nagusia. 12:45ean, txistularien kalejire. 13:00etan, herri-kirolak plazan. 14:00etan, kalejire Kittu taldeagaz. 18:00etan, eskupeleta partiduak. 20:00etan, kontzertua: Chuchin Ibañez & Garibaldi Band mariatiak. 20:00etan, DJ Feli. 02:30ean, txokolata.

### Abuztuak 25, barikua

11:30ean, arimen aldeko meza. 13:00etan, hirugarren adinekoentzako kopaua eta musikea. 14:30ean, Paella Lehiaketarako plateren aurkezpena. 16:00etan, Briska Txapelketea. 18:00etan, Olinpiadak.



20:00etan, Safara Percussion. 23:00etan, kontzertuak: Leihotikan eta Kilimak. Jarraian, MJ Potota.

### Abuztuak 26, zapatua

18:00etan, Danborrada Txikiaren kalejire. 22:30ean, Areatzako Danborrada eta kuadrillen kalejire eta suak. 00:00etan, erromeria Zazpizar taldeagaz. 02:00etan, Areatzako Danborradaren bigarren buelta. Jarraian, erromeria Zazpizar taldeagaz.

### Abuztuak 27, domekea

13:30ean, Tabernen Pintxo Lehiaketea. 16:00etan, Mus Txapelketea. 17:30ean, pala partiduak. 21:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua.

### Abuztuak 28, astelehena

11:00etan, puzgarriak. 13:00etan, bits jaia. 14:00etan, Makailao Txapelketarako plateren aurkezpena. 17:00etan, Tute Txapelketea. 18:00etan, umeen playback-a. 19:30ean, zunba herrikoa eta kolore festa plazan. 21:00etan, Itziar Yagüeren kontzertua Zubizarran. 22:30ean, kontzertu sorpresa Laminetxe Gaztetxean.

### Abuztuak 29, martitzena

13:00etan, Igel Txapelketea. 20:00etan, Tortilla Txapelketarako plateren aurkezpena. 21:00etan, afari herrikoa Areatzako plazan. 22:00etan, MJ GBM. Jaien agurra Laminetxe Gaztetxearen eskutik.



ZEANURI

## Abuztuaren 12tik 16ra ospatuko ditue andramariak Zeanurin

Aurtengoan, jaiegun bat gehiago izango dabe zeanuriztarrek herriko jaietaz gozatzeko, bost guztira: Txupinazo Eguna, Jubiladuen Eguna, Umeen Eguna, Andra Mari Eguna eta San Roke Eguna.

### Erredakzioa

Zeanuriko jaiak hilaren 12an, zapatua, hasiko dira Gorbeiaiko kurutzera igonda. Bajatukeran herri bazkaria egin ostean, Zeanuriko Koruak txupina bota eta jarraian urtengo dira herriko txistulariak Hiru Zubietako kalejiran. Lehenengo egunean hain zuzen be, egongo da gau giro nagusia Herdoil eta Hoferen kontzertu eta Zirkinik Bez taldearen erromeriagaz. Gero, goizean goiz egunero urtengo dira txistulariak heritarrak itzartu eta antolatu diran ekintza ugarietan parte hartzeako: poteoak, jubiladuentzako barauskarria, playback-ak, umeentzako jolasak, dj eta kontzertuak, ardi-txakur txapelketea, mezak, pelota eta pala partiduak, jantzak, lehiaketa gastronomikoak eta karta txapelketak tartean.

### Abuztuak 12, zapatua

08:00etan, Gorbeia igokerea. 15:00etan, herri bazkaria (izen-emotea Txoko Sagarnan). 18:00etan, txupinazoa Zeanuriko Koruaren eskutik. Jarraian, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 18:30ean, poteo musikatua eta kuadrillen arteko jokoak. 22:30ean, kontzertuak: Herdoil, Hofe eta Zirkinik Bez erromeria.

### Abuztuak 13, domekea

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 13:00etan, jubiladuen barauskarria plazan, txistulariek girotuta. 22:00etan, Jaietako Kartel Lehiaketearen sari banaketea.

22:15ean, Playback Txapelketea. Jarraian, DJ Bull.

### Abuztuak 14, astelehena

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:30ean, Umeentzako jolas-parkea plazan. 18:00etan, bits jaia plaza ondoan. 18:00etan, Zeanuriko IV. Arraza Libreko Ardi-txakur Txapelketea Torreko solan. 22:30ean, Kalakan-en kontzertua.

### Abuztuak 15, martitzena

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:30ean, meza nagusia Andra Marin. 13:00etan, trikilariek girotutako potea. 18:30ean, Zeanuriko Pelota Txapelketako finalerdiak eta pala erakustaldia. 22:15ean, Harrobi Dantza Bertikala konpainiaren *Geure(R)a* ikusizuna plazan. 23:00etan, Miren eta Roberto Etxebarriaren kontzertua.

### Abuztuak 16, eguaztena

11:00etan, Sukaldari Egunerako izen-emotea. 11:30ean, meza nagusia Andra Marin. 14:00etan, paella, tortilla eta limoizko postrearen aurkezpena. 14:30ean, Sukaldari Egunekeo sari banaketea eta herri bazkaria. 17:00etan, Zeanuriko Mus eta Briska Txapelketak. 20:00etan, erromeria Xaiborregaz. 22:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz.



## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Auzoetan be, jai ugari ospatuko dira hileon

Artaungo San Bizente, Argiñaoko San Adrian, Otzerinmendiko San Justo, San Lorentzo edo sanlontxoak Murtatzen, Azurrekan, Zeanurin eta Zeberioko Elizondon dira abuztuaren lehen hamabostaldian auzuneetako ermiten inguruan ospatutak diren jaiak. Gero, Andra Mari Igorren eta Zeberioan, San Rokeak Olazabal eta Bedian edo sanbartolomeak ospatuko dira Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

**Erredakzioa**

Danetan ez da egitarau berezirik antolatu, baina bai askotan. Holan, meza ospakizunez gainera kartajokoak, lehiaketa gastronomikoak, herri-kirilak erakustaldiak, bola-jokoak, erromeriak eta kontzerturen bat be egongo dira auzoz auzo.

**Artaun (Dima)****Abuztuak 5, zapatua**

18:30ean, txupinazoa.  
18:30ean, Lourdes Sorraluze XIV. Bola Txapelketa.  
20:00etan, txixi-burduntzi herrikoa.  
22:00etan, erromeria Bilbao anaiakaz.

**Abuztuak 6, domekea**

12:00etan, umeentzako jolasak.  
18:00etan, herri-kirilak: lasto altzatze eta botatze (Jose Martin Bustinza "Tubi" eta Jon Loiola), azkorea (Julen Larrea eta Ioritz Gisasola) eta ingudea (Jose Martin Bustinza "Tubi" eta Jon Loiola).  
20:30ean, Tortilla Txapelketarako plateren aurkezpena.  
21:00etan, trikitilariak, mozorro erakusketa eta errifen zozketea.

22:30ean, txokolatea eta jaien amaiera.

**Azurreka (Lemoa)****Abuztuak 10, eguna**

12:00etan, meza San Lontxon.  
13:00etan, kopaua eta trikitilariak.  
13:30ean, erromeria.  
18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketa.

**San Lorentzo (Bedia)****Abuztuak 10, eguna**

12:00etan, meza Murtatzen. Barauskarria eta trikitrixa.  
17:00etan, Briska Txapelketa (bikoteko bat gitxienez herrikoa).

**Igorreko Udeko Jaiak****Abuztuak 15, martitzena**

12:00etan, meza eta ostean trikitilarien kalejirea.  
13:15ean, kopaua Goiko Plazan.  
17:00etan, Briska eta Mus Txapelketak Bidebarriko plazan.  
17:30ean, Igel Txapelketa Bidebarriko plazan.  
19:00etan, txokolatea Bidebarriko plazan.  
20:00etan, Ut! taldea Bidebarriko plazan.

**Olazabal (Dima)****Abuztuak 15, martitzena**

**Txakolin Eguna**  
12:30etik aurrera, txakolina, pinxoak eta musikea Eingo taldeagaz.

**Abuztuak 16, eguztana****San Roke**

08:30ean, ibilaldia Ilunbera.  
12:00etan, meza nagusia.  
13:30ean, Nagusien Bola Txapelketa.  
17:30ean, Umeen Bola Txapelketa eta jolasak.  
18:00etan, Tortilla Txapelketarako izen-emotea.  
18:30ean, umeentzako baloiak.  
20:00etan, Tortilla Txapelketako aurkezpena.  
20:30ean, txokolatea eta zozketea.  
21:00etan, kontzertuak: Mikey Boy & The Yee-Haws eta Foterie.

**Abuztuak 17, eguna****San Roke Txiki**

12:00etan, meza.  
14:00etan, auzo bazkaria.

**San Roke (Bedia)****Abuztuak 16, eguztana**

12:00etan, meza San Roken. Ostean hamaiketako eta trikitrixa.

## IGORRE

## Hurrengo urteetako Udalaren jarduna ebazteko saioak "kezka sortu" dau EH Bildun

**Erredakzioa**

Igorreko EH Bilduk, idatzi baten bitartez hainbat kexa plazaratu ditu, Udalaren jarduna ezarriko dauan lehen udalbatza urten diranak. EAJren alde alkatetza galdu ostean, "itxaropentsu" egozan Olatz Urkiza alkateak, "alkarregaz lan egiteko" prestutasuna agertu ebalako. Baina lehen saio horretako "ekintzek kezka sortu" dabe ezker abertzalean. Batetik, 41.185 eurotik 46.900 eurorako soldata igokereagaitik, bestetik, udalbatzak hilerokoak izatetik hile birik behin egongo diralako eta amaitu-

teko, batzordeetan ez dalako EH Bilduren zuzendaritzarik onartu.

"Informazioa ez jaku denporaz bialdu; gai ordenaz gain, ez dogu ezelango beste dokumentaziorik jaso, eta gai garrantzitsu batzuk egunean bertan argitu jakuz... Sei batzorde informatibo proposatu dabez, presidentzia guztiak eurenak izango dira eta bertan 250 euroko diru ekarpena egingo jake presidenteari (EAJkoa) eta gainontzekoei 50 eurokoa. Modu berezia alkarregaz lan egiteko eta gugaz lan egiteko zabalik egoteko" adierazo dabe. "Pentsatzen dogu lehen udalbatza saioan hartutako

erabakiak eta egiteko moduak ez doazela norabide egokian, gure lana mugatzeko egin dirala. Errespetuz tratetea eskatzen dogu eta informazioa gardentasunez eta garaiz emotea" gehitu dabe.

Aldizkari honetarako egindako adierazpenetan, Urkizak ez dau soldata igokerea balorau gura izan, KPlaren eguneraketea dala dino. Bestetik esan dau, atzenaldian eduki aldetik plenoak "eskasak" izan dirala: "Ondo dago batzartzea, baina proaktiboak izateko, gauzak egin behar diranean batzartu behar gara". Gainera, udal gehienetan holan funtzionetan dabela arrazoitu dau, "Zeanurin adibidez". Horrez gain, gogoratu dau "gauza potoloak" dagozanean, ez-ohiko bilerak deitu ahal dirala. Beste alde batetik, EAJk egindako batzordeen banaketea be defendidu dau: "Oin gu gagoz gobernuan eta jentek hori ulertuten dau, holan egin dalako atzen hamasei urteetan".

## ZEANURI

## Antxinako zerratokietako lana ikusgai Otzerinmendiko San Juston

**Jon Urutxurtu**

Zeanuriko Otzerinmendi kofradiaren historian hain garrantzitsua izan dan basogintza tradizionalari protagonismo berezia emongo deusie aurtengo San Justo jaietan otzerinmenditarrek.

Abuztuaren 5ean, zapatua, 14:00etan emongo jakie hasikereajaei, San Justoko harextpean egingo dan kofradiako auzo bazkariagaz. Bazkari herrikoi horretan kofradiako kideez gain, edozeinek parte hartu daike, aurretik izena emonda. Horretarako, abuztuaren 2a baino lehenago honako telefonoetako batera deitu beharko da: 647 108 354/669 209 654.

Arrastian, 16:00etatik aurrera Mus eta Briska Txapelketak jokatuko dira eta umeentzat jolasak eta puzgarriak egongo dira.

19:00etan erromeria hasiko da Jone eta Julene trikitilariakaz, eta urdaia eta txokolatea banatuko da danontzat.

Hurrengo egunean, abuztuaren 6an, Justo eta Pastor deunen egunean, 11:30ean meza ospatuko da kofradiako ermitan. Mezearen ostean, eta ohitura zaharrari eutsiz maiordomoak barauskarria —ardozuria eta gailetak— banatuko ditu San Justora hurreraten diranen artean.

13:00etan antxinako zerrategiaren erakustaldia egingo da. Bertan, Gorbealdean aizkorea, trontzea, arpana, txapazerrea... moduko tresnak erabiliz, zuzatzen enborretatik trenbideetarako trabiesak, baserrien eraikuntza erabilten ziran hageak eta oholak zelatan ateraten ziran erakutsiko da. Beraz, Gorbealdean oin dala 70 urte arte ikusi eitekean zerrategietako lana ikusi ahal izango da. Ondoren, motozerrea erabiliz altzari eta irudi desbardinak egingo dira enborrak landuz, era honetan basogintzan emon dan bilakaerea islatuz.

Erakustaldiari amaiera emoteko, bikote mixtoen arteko trontza erakustaldia egingo da.



14:00etan Tortilla eta Paella Txapelketen sariak banatuko dira.

Arrastian 17:30ean Bola Txapelketea jokatuko da. Txapelketa honetako lehenengo lau sailkatuak San Lontzon hurrengo astean jokatuko dan finalerako txartela lortuko dabe, Altzuan, Undurragan, Ipiñaburun eta San Lontzon bertan jokatutako txapelketetan finalerako txartela lortu dabenekaz batera.

**Antxinako zerratokiaren erakustaldia**

Erakustaldi honetan oin dala 70 urtera arte Otzerinmendi eta Gorbealdean zerrategietan zelatan behar egiten zan ikusteko aukerea eskaintzen da. Zerrategi honeetan egiten ziran gehienbat hiru eginkizunerako erabiltzen ziran egur landuak:

1- Etxebizitzen eta baserrien eraikuntzarako hageak eta oholak.  
2- Untzigitzarako, hau da itsasontziak egiteko, lehenengo itsasontziak egurrezkoak izaten ziran-ta.  
3- Trenbideetako trabiesak egiteko, bereziki XIX. mendearan hasikeratik aurrerantza.

Zerratokia basoan bertan edo baserri bat eregiten zan inguruan altxatzen zan. Normalean kontraterrenoa egoan toki batean altxatzen zan, urkuilu eran jarritako enborren gainean, holan kontraterrenoa aprobetxauz, enborrak edo tronkoak zerratokiaren gainean errezago ipinten ziran eta.

Enborra zerratokiaren gainean egoanean, lotu egin behar izaten zan, eta horretarako "txakurrak" izeneko untzeak erabiltzen ziran.

Enborra lotu ondoren, Arpana erabiliz, langileak lau kostanera kentzean eutsezan enborrari, eta holan trabiesea edo hage bat lortzean eben. Arpana trontza handi bat da, eta tresna hau astintzeko, langile bat zerratokiaren goikaldean ipinten zan eta bi azpikaldean. Arpanak azpiko aldean kirten bat dauka eta kirten hori, graduau egin daiteke, azpian dagozan langileen neurriera egokitzeke eta era horretan, euren lana errazago egiteko. Tresna hau astintzeko indar handia egin behar izaten zan eta horregaitik hiru behargin ibiltzen ziran berau astintzen; arpanaren bidea errazteko, beste batek zirria sartzean eban, ebaketa joian bitartean.

Trabiesatik edo hagetik oholak aterateko, beste tresna bat erabiltzen eben "txapazerrea" deritxana. Arpana baino pisu gitxiagokoa eta arinagoa da, eta normalean persona biren artean erabiltzen zan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

# Espainiako Auzitegi Konstituzionalak udaletan euskera hutsean jardutearen kontra egin dau

Udallerri Euskaldunen Mankomunitateak zein Euskalgintzaren Kontseiluak deituta, Arratia, Ubide eta Zeberio udal ordezkariak be hartu eben parte protestetan.



### Erredakzioa

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 6.2. artikulua bertan behera itxi dau. Bi epaileren kontrako botoa izan badau be, udaletan euskera hutsean jarduteko baimenak "oreka linguistikoa" eta "toki erakundeetako kideen hizkuntza eskubideak urratzen" dituala argudiatu dau Auzitegiak. Vox alderdi ultraeskuindarraren salaketa bat dala-ta, eta EAEko Justizia Auzitegitik pasau ostean heldu da euskerearen normalizazioaren aurkako atzen kolpe hau.

Holan, garagarilaren 7an, UEMAk agerraldia egin eban Usurbilen UEMAko herrietako zenbait udal ordezkariak batera. Tartean, Jose Mari Atutxa Dimako alkatea eta Asier Bustinza Igorreko zinegotzia. UEMAko Iraitz Lazkanok adierazpen bat irakurri eban, ebatzia salatu eta udalek euskeraz jarduteko daukien eskumena defendiduteko: "Guk horrelaxe jarraituko dogu, euskeraz funtzionatzen; horretarako bide luzea egin dogulako eta gure konpromisoa eta nahia dalako".

Garagarilaren 13an barriz, Euskalgintzaren Kontseiluak deituta egin eben alkarretaratzea hitzkuntza eskubidearen gaineko eragileek eta udal ordezkariak zabal batek, Bilboko Justizia Jauriaren ateetan. Alizia Iribarren kontseiluko presidentek irakurri

eban adierazpena. UEMAk bat egin eban, epaia "kezagarria eta larria" dalakoan: "Euskerearen normalizazio eta bizibarritze prozesuari oztopoa ipintea da". Horrez gain, argudiatu eban gehiengo zabal, sozial zein politikoak, babestu dauala Udal Legea.

Eskualdeko udal ordezkariak be bertaratu ziran, alkate zein zinegotziak: Josu Basozabal (EAJ Areatza), Aitor Sorriketa alkatea (EAJ Bedia), Josu Gorospe (EAJ Dima), Esther Iturrioz alkatea (EAJ Lemoa), Olatz Urkiza alkatea (EAJ Igorre), Gorka Beitia (EAJ Artea), Peru Perez de Anuzita alkatea (EH Bildu Areatza), Eukeni Bikarregi (EH Bildu Lemoa), Alberto Sanchez (EH Bildu Bedia), Jose Mari Atutxa alkatea eta Mari Jose Barrenexea (EH Bildu Dima), Arkaitz Estiballes (EH Bildu Zeanuri) eta Aritz Azkorbebeitia (Ubideko Herri Kandidatura).

### Euskerea kalea hartzera

Epai honen aurretik, Euskalgintzaren Kontseiluak deituta izan dau euskerea eta herritarren hizkuntza eskubideak defendiduteko manifestazio nazionala, Bilbon zementiaren 4an. Mobilizazio hau euskerearen kontrako "oldarraldi judizialak" buztartu eban. Berbarako, lanpostu publikoetan euskerearen beharrezan kentzea. Oin, Udal Legearen kontrako epaiagaz, errazoi gehiago ikusi ditue euskal-zailek kaleak hartzeako.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

# Igorre eta Lemoan izan ezik, osasun zentro guztietan dagoz murrizketak udan

### Erredakzioa

Aurtengo udan be, Osakidetzak herri txikerretako osasun zentroetako orduetegiak murriztu ditu udarako, mediku zerbitzuenak gehienbat, baina baita erizaintzan be. Holan, Zeberion eta Bedia ez da uda osoan medikurik egongo, beraz, zeberiozarrak Ugaora edo Basaurira mobidu beharko dira; Bediakoak barriz, Lemoara. Areatza, Artea, Dima eta Zeanuri be egongo dira murriztapenak, mediku zerbitzuan batez be. Kasu gehienetan, Igorre mobidu beharko dira honeek.

Egoera honen aurrean, hainbat dira murrizketek kezau diranak eta EH Bildu, eskualde mailako



mozino bat prestatuten dabil. Udalen partetik be heldu dira kekek. Holan, Areatzako alkatea dan Peru Perez de Anuzitak udal bando baten bitartez salatu dau "konsultategiko arreta %90 inguru murriztuko" dala eta hiru zentrotan artean mobidu beharko dirala. Beraz, bakarra zehazteko eskaerea egin deutso Osakidetzari: Igorre. Dimako Udalak be jakinarazo dau, bere "kezka eta desadostasuna" erakutsi deusala Osakidetzari idatzi baten bitartez. Arteako Udal Gobernuak be, idatzi bateratuan eskatu dau Arteako konsultategia urte osoan zabalik mantendutea eta opor zein bajak dirala-ta murrizketarik egotekotan, epe laburrean izatea: "Aurrez aurreko zerbitzua lehentasunezkoa izan behar da".

Olatz Urkiza Igorreko alkateak, arratiar gehienak Igorre mobidu beharko dirala jakinda, BEGITUN esan dau egoerea baloretako batzar bat programau dauala: "Arratiar moduan, kezkatuta gagoz Igorren be".

ZEBERIO

# Hilaren 31n hasiko dira sandoniak

### Erredakzioa

Hilaren 31tik, eguena, urri lehenengoaren 4ra arte, astelehena, ospatuko ditue zeberiozarrak sandoniak. Lehenengo egunean, txupinazoa 19:00etan botako da udal-letxe bakoitiko eta orduan egingo dau eztanda jai giroak. Trikitilariak jarraian urtengo dira eta jantza apur bat egin ostean, herri afaria egongo da, txahal-errea. Gero, Kittu taldeak ipiniko dau musikea.

Hurrengo lau egunetarako, ekintza ugari antolatu ditu jai batzordeak, adin guztietarako: umeentzako jolasak, karta-jokoak, jubiladuentzako bazkaria, playback-ak, bizikleta martxea, lehiaketa gastronomikoak, pelota partiduak, azokea, antzerkiak eta bingoa egongo dira, besteak beste. Musikarik be, ez da faltauko.

Izan be, elektrotzarangak egongo dira arrastiak girotuteko, domekan izan ezik. Gazez ostera, Altxa Porru taldearen erromeria egongo da barikuan. Kontzertuei jagokonez, Bonestok eta Kilimak taldeak egongo dira zapatuan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

# EH Bilduk 22 botoko aldeagaz irabazi ditu hauteskundeak Arratia, Ubide eta Zeberion

### Erredakzioa

Garagarilaren 23ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeak, Euskal Herriko mailan legez, aldaketa sakonak ekarri ditu eskualdeko botoen zenbaketan. Lehenengoz, EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak oin dala lau urte baino 307 boto gehiago lortuta, hau da, %10,41 igon da. Kontrara, EAJk 450 boto gitxiago ditu,

%12,22a galdu dau. Hego Euskal Herriko datuakaz bat egiten dabe, gitxi gorabehera. Izan be, EH Bilduk ia 56.000 boto gehiago lortu ditu eta EAJk, 100.000tik gora galdu. Eskualdean, ahulagoa izan da ezker abertzalearen igokerea.

Beste alde batetik, estatu mailako alderdien artean be egon dira aldaketak, mobimentu handiak gainera. Hauteskunde honetarako "faxismoa geratu arazoteko"

deitu ziran arren, Arratia, Ubide eta Zeberion gehien hasi dan alderdia izan da Vox, 75 bototik 121era, %61,33-ko hazkuntzea. PP be hazi da, 174 bototik 240ra, %37,93 gehiago. Parlamentuaren ezkerreko aldean, PSOE %54,25 hazi da, 779 boto lortuta. Kontrara, Sumar mobimentuak Podemos eta Mas Paisen emoitzak %36,56an txarragotu ditu, 512 bototan geratuta.

	EH BILDU	EAJ	PSOE	SUMAR	PP	VOX	Abstentzioa
ARANTZAZU	136 (113)	61 (80)	22 (13)	9 (27)	0 (1)	3 (0)	%21,17
AREATZA	287 (251)	228 (270)	59 (24)	36 (55)	30 (24)	9 (6)	%24,91
ARTEA	188 (167)	200 (218)	27 (9)	25 (41)	14 (8)	4 (4)	%22,10
BEDIA	124 (124)	289 (319)	74 (46)	58 (76)	28 (16)	17 (16)	%29,58
DIMA	479 (419)	276 (310)	28 (11)	46 (70)	13 (5)	9 (6)	%26,32
IGORRE	774 (743)	868 (1.025)	245 (160)	122 (177)	49 (46)	29 (18)	%29,47
LEMOA	567 (552)	721 (744)	239 (182)	131 (224)	83 (60)	41 (20)	%29,58
UBIDE	58 (59)	18 (22)	7 (5)	10 (5)	1 (1)	0 (0)	%29,10
ZEANURI	350 (289)	295 (370)	40 (13)	42 (59)	15 (10)	2 (2)	%23,90
ZEBERIO	292 (231)	277 (325)	38 (18)	33 (73)	7 (3)	7 (3)	%23,68
GUZTIRA	3.255 (2.948)	3.233 (3.683)	779 (505)	512 (807)	240 (174)	121 (75)	%25,98 (%25,89)

## ZIGOR ITURRIOTZ

# "Gero eta herri biziagoa da Ubide, gero eta gauza gehiago antolatuten dira; aurrekontu gitxigaz baina gure artean"

Maiatzeko udal hauteskundeetan, Ubideko Herri Kandidaturak (UHK) udaletxeko bost jarlekuak eskuratu ebazan, EAJk eukan bakarra be lortuta. Holan, Zigor Iturriotzek eta "herrian bizi dan jente gazteak" gidatutako legegintzaldia eroango dau aurrera.



Zigor Iturriotz.

## Erredakzinoa

Zigor Iturriotz da Ubideko alkate barria, Iñaki Beobidek honeri aginte makilea pasau ostean. Gaztetan Gasteizen bizi bazan be, hurbiletik ezetuten dau Ubide. Aita ubidezterra zan eta astebururo egoten zan familia herrian. Holan, oin dala hamar bat urte mobidu zan Iturriotz Ubidera. Lanbidez, autonomia da eta furgoneta bategaz egiten dau lan. Denpora librean ostera, bizi-modu lasaia: ortua, txakurrak...

## UHKk udaletxeko bost zinegotziak izango ditu aurten, zein izan da sekretua?

Nik uste dot lista polit bat atera genduala, herrian bizi dan jentea, jente gaztea. Ni neu bat, aita ubidezterra zan eta oin dala hamar bat urte mobidu nintzan Gasteiztik hona bizitera. Aritz Azkorbebeitia,

abadiñarra baina hemen ezkondu-takoa. Irati Urien be zeanuriztarra da, baina hemen bizi da. Maider Almandos be hemen bizi da bikoteagaz, nafarra dan arren. Oskar Martinez gasteiztarra da, taberna bat dauka eta bikotea hemengoa. Urte asko daroaguz danok Ubiden. PNVren zerrendan barriz, Ubidekoak bi ziran eta besteak Igorrekoak. Nik pentsau zerikusi handia izan dauala horrek.

## Aurkeztu dozuen programeak be izango eban zerikusia.

Bai, Hiri Antolamenturako Plan Orokorra egiteko daukagu, aurreko legegintzaldian apur bat alde batera geratu zana. Bai ala bai heldu behar deusagu, oingo HAPOak 30 urte ditu eta beharrezkoa da barrizatzea. Energi barriztagarrien gaiari be helduko deusagu, independentzia energetikoan aurrera egiteko plaka

fotovoltaikoak ipini gura doguz frontoian. Beste alde batetik, ikastaro eta tailer eskaintza zabaldu gura dogu, herritarrek zer behar edo gura dabenaren arabera.

## Aurreko politiken jarraipena izango da?

Ubidek ez dau emoten hemendik iraultza bat egiteko aukerarik, antzera jarraituko dogu bai. Baina persona barriak be bagagoz eta idea barriak sartuko dira jardunean.

## Atzen urteetan Ubideko Oroi-men Historikoa landu da herrian, jarraituko da?

Ubide 1936-1945 liburua bagilean aurkeztu zan eta *ubideoroimena.eus* webgunea be amaituta dago. Gure idea landuten segidutea da eta oindino finkatu ez dogun arren, historia azaltzeko plakak edo ipiniko doguz.

## Herriaren lurretan bertoko landara espeziak birlandatu dira atzenaldian, zelan doa?

Ubidek ez dauka lur eremu handirik baina badago beste pinudi txiki bat bota beharko dana. Oso txikia da baina pinuak ateraten diranean ez dira gehiago sartuko, dagoan moduan birnaturalizau edo bertako arbola espezieak sartuko doguz. Oin dala hilabete batzuk lur zati handiago batetik atera genduzan pinuak eta hor bai, bertako espezieak sartu dira, haretxa eta pagoa. Hurrengo urteetan egin behar doguna da hori garbitu eta mantentidu, basoa aurrera aterateko.

## Izan be, basoak eta Gorbeia dira herriak daukan ondare garrantzitsuenetarikoa.

Hori da bai. Gainera, pandemia-

ren ostean ikusi dogu gero eta jente gehiago hurbilduten dala Ubidera. Ondo dago eta turismoa indartu gura dogu, baina hau era jasangarri batean egitea da helburua. Astegienero dator hainbeste jente eta ez dogu gura Otzarretako pagadian pasetan dana gure basoetara ekartea. Ez doguz gure kamino bazterrak kotzez beteta ikusi gura eta basoan behar egiten daben abeltzainak ez errespetetea. Badaukagu zer erakutsi, baina neurrian eta batez be, herria eta herritarrek errespetauta. Jasangarria izan behar da turismoa Ubiden. Gaur egun, badagoz hainbat ibilteko eta bizikletan egiteko bide, Arabara joaten dira gehiago, Oketa eta Gorbeia. Horreek bai, seinaleztatu doguz.

## Eta herriko sarrerako bidekurutzea, noz konponduko dabe Bizkaiko eta Arabako aldundiek?

Dakigunagaitik, urrietan hasiko dira lanak. Sarrerea oso txarto dago eta konponduteko gauza bat da. Azelerazio errail bat ipiniko dabe urteker metro gehiago izateko. Ondo dago ze arriskutsua da gaur egun.

## Eskualdeko herri txikiena gobernauko dozu, ze erraztasun eta ze zailtasun emoten dauz horrek?

Aukera gahiago ikusten doguz zailtasunak baino. Bizimodu trankila eta umeak hezteko oso egokia. Lasai dabiz danak kaletik, ezezagun eta kotxe barik, arazorik ez. Danak ezetuten dira euren artean eta kuadrillak badagoz baina danak dabiz batera. Gazte eta nagusiok be, herriko edonogaz batuten gara. Baina zailtasunak be badagoz. Berbarako, Gasteizko autobus konexinoa gero eta txarragoa da. Aurreko legegintzaldian saiatu ginan, eta jarraituko dogu, presinoa sartzean, ia lortzean dogun. Guk eskatuten doguna da, sikan, Gasteizegaz ez bada, Legutiora egotea loturea bertatik mobiduteko. Dendarik be ez dago, baina etorten dira Zeanuriko Pili, frutaria, arrain-saltzailea, izoztuena... Hori bai, erosketak egutegi bategaz egin behar dira.

## Eta udaletxean?

Egunerokotasuna ondo eroaten dogu. Naturala da eta jenteak deialdian parte hartuteak errazten dau; eszenarioa mon-

tetako edo dana dalakoa. Danon artean egiten dogu beharra udaletxean be.

## Zinegotzi gehienak beste herri batzuetatik heldu zarie, zer egingo da jentea Ubiden geratu edo hurbildutera animetako?

Lehenengo eta behin Ubiden dagozan etxe hutsak aztertu gura doguz, asko dira. Salgai dagoana oso garesti eta egoera txarrean dago. Jentea etorri da atzenaldian, bai, baina Ubidek jente gehiago behar dau. Ezetuten dodaz hemengo gazteak, 25 urte ingurukoak, Ubiden geratu gura baina aukerarik ez daukienak. Etxe hutsen jaubeakaz berba egin eta Hiri Antolamenturako Plan Orokorrean kontuan hartzekoa da, barriztuteko edo, udaletxearen laguntzeagaz. Baina ez daukagu dirulaguntzak emoteko plan bat egiteko besteko aurrekonturik. Hori bai, etorri diranak pozik eta integratu dagoz, erraza da hemen harremandutea.

## Ubide eta Arratian artean barriz, hartu-emon gitxi dago.

Bai, gehienok Gasteizen egiten dogu behar eta beste alderantz, Barazargo portua dago. Hori traba fisiko bat da baina Zeanurigaz adibidez badago harreman gehiago, nik badaukadaz lagunak. Baina orokorrean, Gasteiz aldera tirituten dogu ubideztarrok gehiago. Ez dago beheantza joateko ohiturarik orduan, sentimentu arratiar gitxi dago. Halanda be, pandemiatik aurrera eta hurbildu dira gazte batzuk eta handitu da hartu-emon, baina Arratia Institutura ez joateak asko egiten dau. Herriko Tabernako hangurgesakaz be, hurbildu dira arratiar gehiago. Kasu honetan be, autobus konexinoa txarra da; 45 minutuko bidea eta autobusa ordu biro baino ez.

## Arratiarrek Ubide gehiago ezetu behar dabela pentsetan dozu?

Jentea animau gura dogu bai. Ubidek ez dauka ez dendarik, ez komertziorik, ez zinemarik baina badaukaguz errekea, mendia, basoa, frontoia, umeentzako lekua... Gero eta herri biziagoa da, gero eta gauza gehiago antolatuten dira; aurrekontu gitxigaz baina gure artean. Horren adibide dira jaiak, Ubier garagardao azokea eta Ubidestro mendi lasterketea, besteak beste.

**Kili~Kili**  
Anpasak Puzatzen  
Lehendakari Agire 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 43 81

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanak · Kontularitza  
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**amorrortu**  
taberna - jatetxea - ostatua  
**OSTATUA**  
638 712 523  
Zabiate 1, - 48330 LENOA - Bizkaia  
www.alojamientolemona.com  
info@alojamientolemona.com

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



## PERU PEREZ DE ANUZITA

# "Betí esan izan da, 'Areatzan gosea eta erdereza', baina gaur egun ez dago ez goserik ez beste herrietan baino erdera gehiagorik"

Peru Perez de Anuzitak Areatzako EH Bilduren hirugarren legegintzaldiari ekin deutso alkate moduan. Atzen zortzi urteetan, herriaren aldaketa "ikaragarria" dala dino eta egindakoa finkatu zein hobetzerara dator oin.



Peru Perez de Anuzita.

### Erredakzinoa

Deustuko semea dan arren, Peru Perez de Anuzita laster baten egin zan billaroztarra, Areatzako neskalaguna izan eta "pentsau barik" etorri zanean. Ordutik, negulekuan egin eban behar lehenengo eta eraikuntzan egiten dau oin. Atzen behar horretatik tirituta, oin dala zortzi urte, EH Bilduk alkatetza irabazterakoan, sartu zan uririgintzan laguntzen eta atzen legegintzaldian, zinegotzi lez egon da. Oin, Asier Garcia alderdikideak berari pasau deutso aginte makilea.

### EH Bilduk hirugarrenez lortu dau aginte makilea, ze balorazino egin dozue?

Apur bat bajatu gara, ez jaku arraro egin. Lehen zortzi urteetan ia danak izan dira herrian jaiok eta horrek beste alderdi batzuetako jentea erakarri dau, jente langile eta ezaguna egon da. Oin, nahiz eta danak aretaztarrak sentidu, ez gara hemen jaiok. Halanda be, ez da jeitsiera handia izan, eutsi dogu. Asierren taldeak lan handia egin eban eta jentearen konfiantza badaukagu. Oin, horregaz segidutea toketan jaku guri.

### Zein da oingo lantaldea?

Momentu honetan, hasikeran,

udaleko lanean nigandik hurbilen dagoana Zigor Folla da. Hainbat urte daroaz hemen eta gizarte zein udal kudeaketa arloan dabil, langile itzela. Inma Valiente barriz heziketearen inguruko arloan ibiliko da eta kulturen be, irakaslea da Igorreko eskolan, oso langilea. Iñigo Iruarizaga be badaukagu, BEGITUko langilea, kirola, kulturea eta euskerearen inguruan egingo dau lan. Amaiatuteko, Miren Madariaga egongo da informazioa kudeatuten: webgunea, Areatza Lantzen aldizkaria... Lan garrantzitsua gaur egun.

### 2015ean heldu zan EH Bildu, ze aldaketa ikusi dozuz herrian?

Ikaragarria, badakit talde berekoak garala eta hau gure aldekoa ez dan persona batek erantzun beharko leuke. Nik pentsetan dot, gauza bardina erantzungo leukela. Udaletxea

Asko igarten da

astegoienetan kanpoko

jentea dabilala, herriagaitik

baina baita eskaintza

kulturalagaitik be

oso hurbila egin da, edonor etorri daiteke hona pentsetan dauana esatera. Jentea erraz dator gauzak esatera, gaur adibidez, sarraila bat apurtuta dagoalako. Ba badabiz konponduten. Komunikazio ona dago. Beste alde batetik, udalaren antolaketa asko hobetu da. Lehen bulego guztiak egoazan paperez beteta, desastre bat. Oin artxibo bat daukagu, dana eskura eta ondo antolatuta. Artxiborako, astean behin behargin bat dator dana ondo ipintera. Urigintzan be hobetu da, obrakaz. Arragoetako plazaratxo berbarako. Etxe zahar huts batzuk bota dira lekua egin eta aparkaleku arazoa konponduteko. Honek behin-behinekoak izango dira, gero ikusiko da etxeak eregi ahal diran. Jaietan eragile eta taldeak alkarlana be buztartu da, hori herria udalera heltzeako modua be bada. Ikastaroen eskaintza be zabaldu da, hamar inguru daukaguz egun. Lan asko egin da atzen zortzi urteetan eta hori finkatu eta hobetutea da gure beharra.

### Proiektu barririk be eukiko dozue.

Hainbat, hainbat... Baina herri txiki bat gara eta industria bakoa, hori gure finanziazinorako *handicap* handi bat da. Herri txikia, diru gitxi. Hainbat proiektu dagoz baina ze-

lan gauzatu balorau behar dogu, ez daukagu argi zenbat denpora beharko dogun dana aurrera eroateko. Baina lehenbailehen egiteko batzuk dira aparkaleku arazoa konpondutea, lur batzuk erosten gabiz eleiza azpiko aldean, eta Karpo aldeko espaloia zabaldu eta argiztate. Paseetako eta, asko erabilten da eta zabaldu ezker, jentea erosoago ibiliko da. Askatasun kale osoa be barriz beharko da, obra potentea izango da. Hemen be espaloia zabaldu behar da, irisgarritasun arazoak daukiezanentzako batez be. Leku askotan ezin dira ibili persona bat eta umeen karro bat. Altueren be kenduko dogu adinekoak erosoago mobidu daitezkan. Gainera, eleiza alboan ez baina kotoxak abiadureagaz doaz hortik eta trafikoa hotzitu behar dogu.

### Industria falta eragozpen bat da, baina badago ondare historikoa eta turismoa.

Bai, Areatzako industria handiena bainuetxea da. Hogeta bost persona ingururentzako lan zuzena emoten dau eta horrerri esker, denda eta tabernetan be mobimentua dago. Udalak hori gertatzen dala jakitun izanda, badaukaguz proiektu batzuk. Bidegorria adibidez, erreka beste aldetik, Bitearitik (Artea) hasita hemengo ortuetatik pasau eta Bizkaia jatetxe azpitik Areatzara sartzeako. Hori beste bide batzukaz lotu gura dogu, baina errepidea be bada. Beste alde batetik, Areatzan egiten diran ekintza kulturalak, nahiz eta herritarrentzako izan, kontuan hartuten dogu kanpotik erakarri ahal dogun jentea. Asko igarten da astegoienetan kanpoko jentea dabilala, herriagaitik baina baita eskaintza kulturalagaitik be.

### Eta zer egingo da bertakoentzako Areatza bizigarriagoa egiteko? Atzen datuen arabera herriko etxebizitzaren %13,4 dago hutsik.

Bai, horregaz arazo bat daukagu. Jenteari etortea kostetan jako. Txalet-ak egin dira herri inguruetan eta jentea uribildutik urten da. Urribilduko etxeak zaharrak dira eta jenteari hor sartu eta konpondu-

tea kostetan jako. Dirulaguntzak badagoz, baina plan orokor baten barruan sartu behar doguz. Zelan egin pentsetan gabiz. Saiatuko gara baina leku pribaduetan eskua sartzea gatxa da. Beste alde batetik, etxeak egiteko lursail hutsak be badagoz eta hor bagabiz dinamika bat bultzatzen, ugazabak eregitera animetako, baina zaila da ugazaba asko egonda danon artean adostuteko. Halanda be, HAPOaren bitartez bultzatuko da hau, urte askotarako lana izango da.

### Herriarentzako beste ondare garrantzitsu bat Gorbeia be bada.

Bai, baina beste arlo gatx bat da. Areatza lur horreen jaubea da baina Natur Parkea da. Beraz, gure esku gauza gitxi dago. Badaukaguz, pinudiak eta honek ipini eta noz bota ebazten dogu baina beste kudeaketa gitxi egin ahal dogu parkean. Guretzako, zer egiten dan begiratutea eta gure proposamena botatea da, baina ez daukagu eskumenik. Hori bai, atzen urteetan pinudiak kendu eta bertako landarak sartuteko ahalegina egiten dabiz. Oin hamar hektareako lur bat garbitu eta haretxa sartu dogu, beste lur txikiago baten be sartuko doguz bertoko espezieak, baina nahastuta: lizarrak, haretxak, pagoak... Gure asmoa bertoko basoa berreskuratutea da, ona dalako eta erakarriagoa be bai.

### Areatza UEMAren parte da eta Auzitegi Konstituzionalak ebazti dau, udaletxeetan ezingo dala euskeraz bakarrik jardun. Zer egingo dozue hemen?

Betikoa da hau, burruka bat. Hemen, udaletxean, gure lehenengo berbea beti da euskeraz. Beti esan izan da, "Areatzan gosea eta erdereza" baina gaur egun ez dago ez goserik ez beste herrietan baino erdera gehiagorik. Herria asko euskaldundu da eta udaletxe hartu-emonetan be, holan mantenduko dogu. Ez dogu ez dakit nondik datorren lege bategaitik gure jarrera aldatuko. Halanda be, erdaldunentzako erantzunkizuna be beti euki dogu. Egunen baten igual etorri daitezke zeozer esatera, baina printzipioz, guk euskeraz jarraituko dogu.

## TXIRRINDULARITZEA

106 txirrindulari gazte batu ebazan  
Igorreko XLIV. Sari Nagusiak

Aimar Marin igorretarra, F2 Informatika-Zornotza taldeagaz, Bizkaiko Kopako bigarrena izan zan.

## Erredakzioa

Garagarrilaren 8an, Igorretik urten eta Arratia zeharkatu ostean, San Kristobalen amaitu zan jubenilen Igorreko XLIV. Sari Nagusia jokatu zan, 87 kilometrokoa. Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko txirrindulariek hartu eben parte eta atzen honeen artean, Bizkaiko Kopa egoan jokoan. Irabazleak irabazle, Murias Arratiako Iñigo Ealo, jubenilen arduraduna, pozik agertu zan lasterketearen ostean: "Jente asko pilatu zan bertan eta gustura gelditu ginan danak, bai txirrindulariak, bai ikusleak".

Lasterketea bera, Jon Conejero arabarrak irabazi eban 02:04:57ko denporeagaz. Honen atzetik heldu ziran lurdan Garcia eta Eñaut Otegui. Mendiko Saria be egon zan, San Kristobal eta Biteriño artean. Hau be, Conejero irabazi eban. Bizkaiko Txapelduna barriz, lurdan Garcia izan zan. Bigarren eta hirugarren postuan, hurrengo hurrengo geratu ziran Aimar Marin igo-

retarra, F2 Informatika-Zornotza taldekoa, eta Oskitx Egiguren.

Ibilbideari jagokonez, lehen zati arin eta erraz bat eta bigarren zati oso gogor bat gairiditu behar izan ebezan gazteek. Ealok azaldu dauanez, ibilbidea gehiago zaildu eban bero handiak. Lehen zatian, hirutan egin eben Garakoi (Igorre) eta Zeanuri arteko biera. Bigarrenean, birritan egin eben San Kristobaleko igokerea, Dimatik bajatu eta gero, atzen aldiz

San Kristobaleko txokora helduta. Igokera honeetan, jente ugari batu zan kamino bazterretan.

## Murias Arratia

Talde arratiarretik sei izan ziran garagarrilaren 8ko lasterketan parte hartu eben txirrindulariak: Aimar Arauzo, Markel Ealo, Txaber Lazpita, Markel Maguregi, Aner Zuluaga eta Florian Onescu. Euretatik, Txaber Lazpita izan zan helmugara lehenengo heldu zana.



Argazkia: Vicente Marin Lozano.

## MENDIA

Zabalik dago X. Areatzako Mendi  
Martxarako izen-emotea

## Erredakzioa

Areatzako Mendi Martxaren hamargarren edizioa urri lehenengoaren 30ean egingo da, uri inguruko antxinako bideetatik.

"Urte berezia" da aurtengoa Areatzako Mendi Martxako antolatzaileentzako, hamargarren edizioa ospatuko da-ta. Urri lehenengoaren 30ean, goizeko 08:00retan urtengo dira martxa luzea, 29 kilometro eta 1.800 metroko desnibelekoa, eta laburra, 21 kilometro eta 1.000 metroko desnibelduna. Atzen hau Bikozgarnetik, autobusean igon ostean.

Izen-emotea, zabalik dago daborduko [areatzakomartxa.blogspot.com](http://areatzakomartxa.blogspot.com) webgunean. Hamabost euro ordaindu behar dira eta barnean dagoz aseguru, horniketak, hamargarren edizionoko kamiseta berezia, dutxa eta Octoberfest-erako txartel baten prezioa. Hamalau urtera arteko gaztetxoentzako prezioa barriz, hiru eurokoa da. Aurtengoa,

ezingo da izena egunean bertan emon. Webgunean egin behar da izen-emotea, urri lehenengoaren 21a baino lehen.

Antolatzaileek azaldu dabenez, martxako helburuak bardinak izaten jarraituko dabe: "Herrikoei eta herria ezetuten datozenei, lehen erabilten ziran bideak erakustea; bai eta mendi zein buzoi ezezagunak". Izan be, atzen edizinoan antxinako bide ugari zabaldu ditue, aurtan beste barri bat garbitu da. Bide horreetatik, Areatzako punturik altuenera helduko dira mendizaleak, 1.284 metrotara dagoan Arranobaltza puntara. Horrezaz gainera, Upo, Urkidi eta Mendiganako tontorrak be zapalduko ditue.

## Egun osoko jaia

Hamargarren urteurrena dala-ta, mendi martxea bakarrik ez, egun osoko jaia antolatu da Areatzan Beerllaro eta Zazparrakaz alkarlanean. Beerllarok, Octoberfest-a antolatuko dau martxakoak plaza-

ra heldu orduko, baktaxari saltxitxa eta garagardao bana banatuteko. Zazparrak aisi taldeak oster, bazkaria antolatu eta musikea dakar Areatzara. Eguerdian Dirty Old Band taldea egongo da eta arrastian, Orkresta elektrotxarangea eta Kupel Jaurtiketa Txapelketea. Gauerako barriz, Beranduegi erromeria dago deituta. Gero, dj batek ipiniko dau musikea.



## MENDIA

Onditz Iturbe lehena izan  
zan Val d'Aran by UTMB-  
ko SKY lasterketan

Onditz Iturbek atzenaldian, berak esan moduan "pistoia bajatu" dauan arren, bagilean mundialetan parte hartu ostean badoa apurka-apurka erritmoa hartzean.

## Erredakzioa

Holan, garagarrilaren 8an Arango haraneko Val d'Aran by UTMBn egon zan eta 15 kilometro eta 800 metro positiboko SKY proban, urrea lortu eban korrikalari igorretarrak. Pla de Beret heritik urten zan ibilbide zirkularra, ordu bat eta 29 minututan egin eban Iturbek. Atzetik, Ana Tauste (01:34:19) eta Robyn Lesh

(01:34:53) ailegau ziran helmugara.

Iturbek azaldu dau, esperientzia ederra izan zala, eguraldiak lagunduta gainera. Izan be, Iturbek korridu baino egun bat lehenago, Val d'Aran by UTMB-ko lasterketa garrantzitsuenak bertan behera gelditu behar izan ziran, ekaitz bat zala-ta. Lortutako txapel honegaz, "burrukarako gogotsu eta prest" dagoala frogatu dau Iturbek.



Argazkia: Ramon Ferrer "Monrasin".

## MENDIA

Inskripzioa zabalik, VII.  
Lemoatx Trail-erako

## Erredakzioa

Ganzabal Mendi Talde lemoaztarak aurtan be, zazpigarrenez, antolatu dau Lemoatx Trail. Zemendiaren 19an izango da Lemoako mendizaleen eguna eta martxa zein lasterketa bina egongo dira, luzeak eta laburrak. Edozein kasutarako, zabalik dago izen-emotea [buscametas.com](http://buscametas.com) webgunean eta urri bigarrenaren 3a baino arinago egitea gomendau dabe antolatzaileek, kamisetaren neurria bermatuta eukiteko.

Lau aukera desbardin dagoz. Batetik, 24 kilometro eta +1.300 metroko desnibeleko lasterketa

nagusia, hoge euroko prezioagaz. Bestetik, lasterketa laburra be badago, 16 kilometro eta +910 metroko desnibelduna, hamabost eurotan. Lehenengok Belatxikieta eta Lemoatx igongo dabe, bigarrenok Belatxikieta baino ez. Federatuta ez dagozanek, bost euro gehiago ordaindu beharko dabez.

Martxei jagokienez, laburra zein luzea dagoz. Lehenak lasterketearen bidea jarraituko dau eta bigarrenak, Lemoatx bakarrik igon. Martxa familiar honek, 8,3 kilometroko luzeera eta +410 metroko desnibela dauka. Martxen kasuan, federatuta ez egoteak prezioaren bi euroko garestitzea dakar.



## TXIRRINDULARITZEA

# Oskar Garrok Espainiako Kopa irabazi dau, MC2 kategorian: "Dana emon dot eta hor lorpena"

### Erredakzioa

A Larachan (Galizia) jokatu zan garagarrilaren 15ean Txirrindularitza Paralinpikoko Espainiako Kopako atzen lasterketea, Adro de Vilañoko Sari Nagusia. MC2 kategorian egon zan Oskar Garro



txirrindulari igorreztarra. Lasterketea bigarren postuan amaitu eban baina aurreko lasterketatik, Espainiako Kopako irabazlea zan Garro matematikoki. Oin, ofiziala da saria eta pozik agertu da Igorrekoa. Izan be, lau urteko errehabilitazio baten ostean aurten bueltau da txapelketetara.

A Larachako lasterketan, bigarren heldu zan Oskar Garro helmugara, Luis Javier Arceagaren ostetik. Bera izan da bigarrena sailkapen orokorrean. Hirugarrena barriz, Paulino Fernandez izan zan. Garrok BEGITU egindako adierazpenetan esan dau 5, 6 kilometroko zirkuitua ibilbide gogorra izan bazan be, disfrutau ebala: "Dana emon dot eta hor lorpena".

## PELOTEA

# Aldai eta Bergara, laugarren San Fermin Torneoan

### Erredakzioa

Garagarrileko zita garrantzitsua da San Fermin Torneoa, aurten, andrazkoen bosgarren edizinoan jokatu da. Pasau dan urtean, Amaia Aldai pelotari dimoztarra azpitxapelduna izan zan baina oingoan, ez dau finala jokatuteko aukerarik izan. Hirugarren eta laugarren postuagaitik lehiatu zan Arrate Bergaragaz, Leire Garai eta Leire Galeanoren kontra eta atzen honeek irabazi eben, 14-18.

Aldai onartu eban, partidu "arraroa" izan zala hasikeratik, pelota asko galdu eta gatx izan ebalako tantuak aurrean amaitutea. Beste alde batetik, aurkariak Bergara eta bera baino hobeto ulertu ziran Labriten, izan be, dimoztarrak ez eban txapelketea Bergaragaz hasi. Andrea Capellan izan behar zan bere bikotea baina finalaurrekoa eta finala, ezin izan ditue batera egin. Gainera, finalaurrekoan Irati Zabalagaz jokatu ostean, barriro aldatu behar izan eban bikotez: "Arrate eta biok ondo hasi ginan, opari gitxi, baina aspaldi egon gara alkarregaz jokatu barik eta kantxan hobeto ulertutea faltau izan jakun hamazortzira heltzeako".

### Udako Torneoa

Emakume Master Cup-eko

zirkuituaren parte dan Udako Master Laboral Kutxan murgilduta egongo da Aldai hurrengo asteetan. Aurreko urteko edizinoan Capellanegaz jantzi eban txapela eta oingoan, Uxue Oses da dimoztarraren bikotea. Beste bikoteak Arraiza eta Mendizabal, Etxegarai eta Gaminde, Arrizabalaga eta Galeano eta amaituteko, Garai eta Capellan dira. Oindino jardunaldi bi jokatu dira, lehena irabazi (22-16) eta bigarrena galdu (10-22) egin dabe. Urri lehenengoaren 29an Hondarribian jokatuko dan finalaren aurretik, beste sei jardunaldi faltau dira.

### Euskal pelotea AEBn

Andrazkoen Hiru Hiriburuak Torneoako txapeldun eta txapeldunordeak, Amaia Aldai tartean, Idaho estaduko Boise urian dagoz oin, Nazioarteko Basque Country Txapelketea jokatuten. Boisen, hain zuzen be, bizi da Estatu Batuetako euskal komunitate nagusia. Holan, Aldai, Olatz Arrizabalaga, Nora Mendizabal eta Andrea Capellanek osotutako delegazioaren helburua, "nazioartean andrazkoen eskupeloteari bultzada eta bistratze barri bat emotea" izango da, Gorka Iturriaga Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak adierazoz dauanez.

## LASTO JASOTZEA

# Jose Martin Bustinza "Tubi"-k barriro jantzi dau Bizkaiko lasto jasotearen txapela

### Erredakzioa

Garagarrilaren 23an, Busturiako Axpe auzoan jokatu zan Bizkaiko Herri Kirol Federazioak antolatutako Bizkaiko Gizonezkoen Lasto Jasote Txapelketea eta aurten be, Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarra izan da irabazlea. Berak be onartu dau, ez dakiala zenbatgarrenez jantzi dauan daborduko txapela. Beste dimoztar bat be egon zan lehian, Jon Loiola, hirugarren postuan geratu zana.

Egin beharreko lana, 45 kilogramotako lasto fardoa zazpi metrotara igotea zan, minutu bitan ahalik eta jasoaldi gehien eginda. Holan, "Tubi"-k hogeta lau jasoaldi egin ebazan, Beñat Amadek hogeta hiru, Jon Loiolak hogeta bat, Unai Ardeok hamasei eta Bingen Erleagak hamalau.



## ARDI-TXAKUR TXAPELKETE

# Jon Olibares eta Bizi ardi-txakurra, hirugarrenez Bizkaiko Txapeldun

### Erredakzioa

Garagarrilaren 8an, Lemoan jokatu zan Bizkaiko Ardi-txakur Txapelketea eta bertan egon ziran Zeanuriko Jon Olibares eta Bizi ardi-txakurra, sei urteko Border Collie errazakoa. Hirugarrenez aurkeztu dira Bizkaiko txapelketara eta hirugarrenez jantzi dabe txapela. Estatu mailako txapeldunak be badira zeanuriztarrak. Probinzietako txapeldun desbardinak batuten dira Katalunian lehiatzeko eta oin dala urte bi, irabazleak izan ziran Olibares eta Bizi.

Olibares barria da ardi-txakurren eta artzaintzaren munduan. "Zalea

naz, ez profesionala". Sasiardiak, gaur 30 buru daukaz, familiak Zeanurin daukazan landa txikiak garbi mantenduteko ipini ebezan baina

zailtasunak eukiezan honeek landa mobiduteko: "Txakurtxo bat ipintea pentsau genduan eta horrek ekarri dau beste guztia".



## FUTBOLA

# Abuztuaren 18tik 20ra jokatuko da XXXV. Igorre Saria

### Erredakzioa

Urbietan zelaia Igorre Sariaren hogeta hamabosgarren edizinoan hartuko dau abuztuaren hirugarren astegoienean, barikutik domekara. Aurten, txapelketea triangelukatua izango da, Arratia, Padura eta Basconia taldeen artean. Atzen edizinoan, Basconia izan zan irabazlea eta lau talderen

artekoa izan zan torneo, aurten-go talde bardine eta Urdulizek hartu eben parte.

Partidu guztiak, arrastiko 18:30ean jokatuko dira. Lehiatzen lehenengoak, Arratia eta Basauriko taldea dan Basconia izango dira, barikuan. Zapatuan barriz, Arratia Paduraren kontra arituko da Urbietan, hau da, Arrigorriagako taldea. Atzen partidua,

domekan izango da, Basconia eta Paduraren artekoa.

### Andrazkoen Kopea

Gizonek bakarrik ez, andren Arratia Ak be Kopea izango dau jokoan abuztu amaieran eta urri lehenengoaren hasieran. Abuztuaren 19an, triangular bat jokatuko da Arratia, Real Sociedad B eta Bizkurre taldeen artean. Urbietan izango dira partiduok, 45 minutukoak bakoitza, 11:00etatik aurrera. Gero, hilaren 26an Mulier taldearen kontra jokatuko dabe etetik kanpo eta emoitzearen arabera, urri lehenengoaren 2an jokatuko dau Arratia Ak atzen partidua.

## DIMETAL

## Urri lehengoaren 29an eta 30ean ospatuko da VII. Dimetal Fest

Atzen urtean formatu txikiko jaialdia egin ostean, egun biko jaialdia antolatu dabe aurten Dimetaleroek. Hamaika dira taula gainera urtengo diran taldeak, beterano zein promesa gazteak.

## Erredakzioa

Urri lehenengoaren atzen aste-goienean, "metal eta rock-aren inguruko dibersidade handiko taldeen" musikeak hartuko dau Dima. Hamaika dira konbidatu dabezan taldeak: Cobra, PI L.T., Asgarth, Kristonak, Numen, Bullets of Misery, We Exist Even Dead, Rodeo, Calathea, Alma Culter eta Penny Fleck. Holan, aurreko urtean antolakuntzeak atzerapausu bat egiteko premia sentidu ostean, formatu handiko jaialdia izatera bueltauko da Dimetal Fest. Izan be, aurreko urtean egun bakarreko jaialdia izan zan Dimetal. Hori bai, egun bakar baina errepikaezina, Soziedad Alkoholikaren kontzertuagaz.

## Cobra

2006an sortutako rock-metal taldea da, talde entzutetsuetako jentea batu dauana: Berri Txarrak-eko David Gonzalez bajuan, Evisus69-ko Josu Luengo gitaran, Kokein-eko Haritz Leteren ahotsa eta Dinero-ko Ekain Elorza baterian. Urte honeetan sei disko argitaratu ditue: *The Strong Arm of the Rock* (2007), *Thriller!* (2011), *Covered* (2012), *Riffyard* (2016) eta atzena, *Fyre* (2020).

## Asgarth

1997an jaio zan Donostiako Añorga auzoan eta gorabehera handiak izan dituan taldea da. Izan be, hasikeran oihartzun handia izan eban baina 2007an, taldea disolbatu zan. 2020an urten behar ziran barriro oihartzara baina pandemia dala-ta, urte bi gehiago itxaron behar izan ebezan. Oin, "estilo klasikora, boskotea eraberrituta eta soinu indartuta" datoz Asier Enbil (ahotsa eta teklaua), Ander Cañas (gitarra), Unai Zabala (gitarra), Mikel Yarza (bajua) eta Etxahun Urkizu (bateria). 2022an disko barria kaleratu eban, *Zeldatik*. Aurretik, *Jainkoen egoitza* (1999), *Etorkizunaren sustraia* (2001), *III* (2002) eta *Garrasia* (2005) grabau ebezan.

## Numen

1997. urtean Arrasaten jaiotako taldea da. Aritz (ahotsa), Jabo (gitarra), Xabi (gitarra), Lander (bajua), Eol (teklaua eta ahotsa) eta Eihar (bateria) dira atzen diskoko taldekideak. Euskal



Herrian, muturreko metala eta folka buztartuten lehenengotarikoa izan ziran, euskal folk musika tresnak be erabilita, alboke eta txalapartea. Kanten letretan be, agerikoa da Euskal Herria: mitologia, kondairak, guda zaharrak eta kristautasunaganako gorrotoa. Holan, black metal paganoaren munduan kokatzen da Numen. Sei lan argitaratu ditue: *Haize sorginduen intziriak* (2000), *Galdutako itxaropenaren eresia* (2001), *...jarrai beza kondairak* (2003), *Basoaren semeak* (2003), *Numen* (2007) eta *Iluntasuna bersarkatu nuen betiko* (2019).

## Bullets of Misery

Gernikan jaio zan taldea eta hamabost urte daroaz oiholtzan. Lau disko argitaratu ditue daborduko, urrietan aurkeztu eban atzena: *Debile principium melior fortuna sequatur* (*Violence in the Veins*). Death metal, thrash eta hardcore musikea lantzean dabe baina batez be, eurena "%100 baserriko death-a" dala dinoe.

## We Exist Even Dead

Kataluniako metalcore taldea da WEED, 2016an Arthur Hardek (ahotsa), Guillek (bajua), Moshmannek (bateria), Oscarrek (gitarra) eta Alejandrok (gitarra) osotutakoa. Hasikeratik izan da

asmo handiko taldea, metalaren nazinoarteko eszenan sartzeako helburuagaz, estilo desbardinak buztartuteko bildur bakoa. Momentuz, disko labur bat, *Meet No End* (2016) eta luze bat, *Eventide* (2018), argitaratu ditue.

## Rodeo

2014an Zestoan batutako laukotea da Rodeo taldea eta lehenengoz, 2015ean igon ziran oiholtzara. Orduetik, Kyuss taldearen eragin handia daukan stoner-rock musikea egiten dabe Mikel Illarramendik (ahotsa eta gitarra), Orzi Alberdik (gitarra eta kora) Beñat Subinasek (bajua) eta Oroitz Urbietak (bateria, kora). Oin arte, lau dira Rodeok argitaratu dituan lanak: *Rodeo* (2017), *Dilmun* (2018), *Ezherrian* (2020) eta *Moira* (2022).

## Calathea

Calathea 2021ean Galdakaon sortutako laukotea da eta iraganeko rocka zein hardcorea buztartuten dauz. Eurena, "inork azaleratu gura ez dauzan sentimenduak gure barneko forma gordinean oihukatzen dauan musikea" dala dinoe. Doinuen iturri nagusi lez barriz, Viva Belgrado, Counterpartes talde kanadiarra eta Meltdown hernaniarra ditue, besteak beste.

## Alma Culter

Alma Culter street metal taldea da, 40 urtetik gorako esperientzia daukan Maria Luz Gonzalez "Marilu"k osotutakoa. Euskal metalean, aitzindarietako da Marilu eta *Ladies of Metal* bildumea 2017an argitaratzerakoan animau zan barriro talde bat osotzera. Holan, Arbi gitarrak-jole, Pako bateriak-jole eta Iñaki bajak-joleagaz batu zan. Hasteko, bost abestitako diska laburra, *Alma Culter*, atera eban eta 2022an *Caos* diskoa.

## Penny Fleck

Durandaldeko Penny Fleck boskotea rock eta stoner musikearen artean dabil, onartu dabenez, baita pop-rockean be. Urte bi pasatxo dira lehenengoz Joanna Keene (ahotsa), Iñigo Larrigan "Moin" (gitarra), Jokin Larrea (bateria), Jon Revilla "Yuki" (gitarra) eta Koldo Zubia (bajua) lehenengoz batu ziran eta lehen diskoa, *Secret Keeper* 2022ko urrietan argitaratu zan. Talde barria da baina proiektu desbardinetan ibilitako jenteez osotutakoa. Besteak beste Storm, Arto Bixarra, Dirties, Sermons, Xaiko edota Kilauea taldeetan.

## PI L.T.

PI L.T. 1993an Mungian sortu eban Aitor Abiok (teklauak, kora), Jose Manuel Sampedro "Xanpe" (bateria), Rafa Ruedak (gitarra, ahotsa) eta Txarli Solanok (bajua). Euskal rock eta metal talde entzutetsua izan zan 90. hamarkadan, 2005ean banda disolbatu zan arte. Ordura arte, lau disko argitaratu ebezan: *PI L.T.* (1995), *Denbora* (1998), *3* (1999), *Minus* (2002) eta *Game Over* (2004). Hamarkada bate-tik gora isilik egon zan taldea baina 2017an jakinarazo eban, "kontzertu gitxi batzuk emoteko" egozala bueltan, halanda be, ez dira ordutik geldirik egon. David Gonzalez bajak-jolea batu zan taldera PI L.T.ren bueltarako. 2020an bertan behera gelditu zan Dimetal Festen jotekoak ziran, baina beste urte bi itxaron behar izan dabe Diman joteko.

## Kristonak

Kristonak, lehen Eskean Kristo moduan ezetuak, Arratian aurkezpen gitxi behar dauan taldea da. Arratiar honek 2011n hasi ziran rock&roll-aren urrezko garaia begira musikea egiten eta 2013an Gaztea Maketa Lehiaketea irabazi ostean egin ziran entzutetsu Euskal Herriko plaza eta aretoetan. Pandemiaren ostean, taldea eraberritu zan Kristonak izenagaz eta *Ahobetehortz* (2022) argitaratu eban Pello Artabe (ahotsa), Alex Harillo (gitarra), Aritz Ontalvilla (gitarra), Perico Flaco (bajua) eta Manu Forte (bateria) taldekideek.

## MUSIKEA

## Kalakan taldearen kontzertua egongo da Zeanuriko jaietan



## Erredakzioa

Kalakan musika taldeak kontzertua emongo dau abuztuaren 14an, astelehena, Zeanuriko plazan Andra Mari jaien programazioaren barruan. Emonaldia 22:30ean hasiko da.

Pierre Sangla, Xan Errotabeherre eta Jamixel Bereauk osotzen dabe Kalakan musika taldea egun. Taldea Paxkal Indo eta Thierry Biscary txalapartariak sortu eban 2009an, Nafarroa Beherean, baina aldaketa ugari izan ditu ordutik.

Euskal Herriko kantuen moldaketa minimalistak egiten ditu Kalakanek, txalapartea, atabala edo tanborrak eta ahotsa erabiliz.

Kalakan euskal musikariaren hirukoteak *Ahotsez* disko barria dakar; taldeak oin 12 urte sortu zaneke garaiko soinuakaz konjektetako egiten dauan bidaia. Kantuak eta *a capella*, hartzean dau protagonismoa konposizi-nootan. Asmoa da "soinu puruago eta sinpleago batera itzultzea, danok jaiotzatik dakargun musika-tresna baten inguruan: ahotsaren inguruan, alegia", dinoe Kalakan taldeko kideek.

Zuzenekoetan *Artizar* diskoko kantuak be jotzen ditue. Proiektu paralelo bi dira, baina *Ahotsez* lanean musika proposamena intimoa, teknika gitxiak eta ia mikrofoniarik bakoa da eszenatik. Akonpainamendu eta giro elektronikorik bakoa. Disko barriaren azalak berak be purutasun estetikoaren idea hori islatzen dau, grafismo garbi batez eta ezterriko *chakra* irudikatzen dauan sinbolo batez: *Vishuddha chakra*, hain zuzen be.

Maitasuna eta hainbat omenaldi dabez berbabide abesti barriek; omenaldia txori kantari, urretxindorri esaterako, pelotari eta pelotari... Baina portugesez eta ingelesez be badaukiez abestiak, baita txiletar kantu bat be. Hazpainen grabau eta moldatua da diskoa.

## MUSIKEA

### Ut! taldeak 70. eta 80. hamarkadako musikea dakar Igorrera

#### Erredakzioa

Juantxu Urkiagak pasau dan urtean osotutako taldea abuztuaren 15ean egongo da entzungai Igorreko Bidebarri plazan, 20:00etan. 1970 eta 1990 arteko doinuek hartuko dabe Igorre Andra Marietako Udako Jaian. Errobi, Itoiz, Benito Lertxundi eta Zarama moduko talde eta abeslari mitikoak gogoratuz, garai horreetan "Euskal Herriko plazetan sortzean zan giroa barirro biziteko" aukerea izango da. Hori izan da hasikeratik, Ut! taldearen helburua.

Hamarkada luzez Jokaldin egondako Juantxu Urkiagak, eskarmentu handiko beste lau mu-

sikarikaz sortu eban Ut!. Pandemi aurretik hasi ziran batzean Beñat Serna, Jon Fresco, Iñaki Zabaleta, Markel Arevalo eta Urkiaga. Baina urte biko geldialdi kulturalak behartuta, 2022ko bagilera arte itxaron behar izan eben oholtzara igoteko.

Juantxuk uste dau, gaur egun atzerriko musikea dala protagonistea eta oin dala 30 urte hemen egiten zana "itzela" zala, baina apurka-apurka plaza giroa galzorian dagoala: "Horrek ez dau esan gura ez gagozala gaurkoagaz ados, baina geurea ezin dogu galdu". Atzeraka begirada hori, taldeak aukeratuako izenean be iragarten da, izan be, ut gaurko do notea izan zan, XVII. mendera arte.



## MUSIKEA

### Kilimak eta Leihotikan taldeek girotuko dabe barikua Areatzako jaietan

Abuztuaren 25ean, barikua, erritmo desbardinatako musikeak girotuko dau Areatzako plazea, 23:00etatik aurrera.

#### Erredakzioa

Karibeko doinuakaz baina euskeraz jantza egiteko talde gazte bat, Kilimak, eta samea hustu arte kantetako talde beterano bat, Leihotikan. Aurretik Safara Percussioneek girotuko dau iluntzea eta kontzertuen ostean, MJ Pototak ipiniko dau musikea.

Kilimak taldea 2018an osotu zan Hernanin eta hasikeratik, euskal runba jantzagarria plazaratu dabe igon diran oholtzetan. Arin zabaldu zan Euskal Herriko jaietan euren musikea baina jarraian, pandemiak gerarazo eban taldea. Kontzertuak bai, baina euren jarduna ez eben gelditu. 2020an, Gaztea Make-ta Lehiaketaren 29. edizinoko Entzulearen Saria irabazi eban Kilimakek eta hurrengo urtean kaleratu eben lehen diskoa, *Euskal Herriko runba*. Holan, Agus Garmendia (ahotsa eta gitara), Ione Zozaya (ahotsa), Ander Larrañaga "Larra" (perkusinoa), Antxon Gutierrez (bajua) eta Oskitz Gorrotxategi (tronpetea) plazaz

plaza dabiz barriro.

Leihotikan talde iruindarra oster a ibilbide luzeko bandea da, punk-rock eta hardcore melodikoa, letra zainduakaz buztartuten dauzan laukotea. 1992an osotu eben taldea Gorkak (ahotsa), Patxik (gitarra), Aitorrek (bajua) eta Kikek (bateria). Hurrengo urtean Titi sartu zan Gorkaren orde eta holan jarraitu dau taldeak ia 30 urtez. Euskal Herriko ohol-

tzetan mobidu dira batez be, baina kanpoan ibilitakoak be badira, Herrialde Katalanetan eta Kantabrian berbarako. Hiru hamarkada honeetan, zortzi dira Leihotikan taldeak argitaratu dituan lanak: *Hemen ez da ezer aldatzen* (1998), *Lur* (2000), *Munduaren leioa* (2003), *Ilunago, ederrago* (2006), *Oroimenak erretzen* (2011), *Harold* (2012), *Punk rock talde soil bat* (2014) eta *Non zaude?* (2018).



Leihotikan.

## DUNBA

### Igorreko Azoka Solidarioak arrakastea izan eban

Maiatzaren 19an, barikua, Inazio Zubizarreta

Eskolako Hezkuntza Komunitatearen eskutik, Azoka Solidarioa antolatu zan eskolako patioan.

#### Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak

Ikasleek klaseak amaitu bezain laster hasikera emon jakon ekitaldiari, arrastiko 16:30ean 6. mailako ikasleek sortutako abesti batez. Eguraldi aparta egin eban eta jente ugari hurbildu zan. Herritarren parte-hartzea oso nabarmena eta positiboa izan zan hasikeratik amaitu arte, arrastiko 19:00ak inguru.

Azoka Solidario honen helburua argi egon zan proiektuaren hasikeratik: Hezkuntza Komunitate osoaren parte-hartze eta la-

guntzeagaz Arratiako plataforma batentzako ahalik eta diru gehien biltzea. Aurten Ongi Etorri Errefuxiatuak izan da aukeratu doguna. Guztira 1.226 euro ateratu doguz hainbat ekintzen bidez.

Ospakizun honen aurreko asteetan zehar Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleek ikusten ez baina ezinbestekoak diran lan garrantzitsu horreetako bat aurrera ateratu eben ikasle eta familia bakotxaren esfortzu eta partaidetzeari esker. Ikasle gehienek gero saltzekoak izango ziran gauzak ekarri eta produktu guzti horreei prezioak ezarri eutsiezan.

Lan erraza izan ez bazan be, danon ahaleginari esker aurrera ateratu eben.

Azoka Solidarioan hainbat postu egon ziran. Horreetako batzutan ikasleek ekarritako produktuak saldu ziran: liburuak, jostailuak, erropak, etxean prestatutako janaria edo eurak gelan

sortutako eskulanak. Bestalde, ulean trentzak egiteko eta atzazalak eta arpegiak margozteko postuak be egon ziran, arrakasta handiagaz.

10 sari zozketatu ziran, errifak euro baten truke erosiz. Sarien artean, adibidez, janariez osotutako otzarak, edota herriko den-



dari batzuk oparitutako bonuak, landareak eta jolasak egon ziran. Honeen artean nabarmendu eta eskerrak emon gura deutseguz Marrak paper-dendako Mireia, Kili-Kili erropa dendako Mari eta Garden Igorre loradendako Conchiri.

Espereintzia honeri esker haxe ikasi dogu: beti egongo dira gure laguntzea behar daben personak eta danok batera lan egiten badogu askoz indartsuagoak izango gara.

Eskerrik asko parte hartu zenuen guztioi.



# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

#### BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m<sup>2</sup>) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

#### TXAKURRAK EMOTEN DODAZ

Hiru ehiza txakur daukadaz emoteko. Hilebete bat daukie. Igorreko Agarreko baserrian dagoz. Interesdunek deitu: 661 259 002.

### LANA

#### PSIKOLOGIA ZENTROA ESKUALDATZEN DA

Igorreko San Juan auzunean, baimen guztiakaz eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272 (Sagrario) telefonora.

### TABERNARI BILA

Axular Herriko Tabernan lan egiteko tabernari euskaldun bat behar da. Interesdunek tabernan galdetu edo [axularke@gmail.com](mailto:axularke@gmail.com) helbidera idatzi.

#### GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebexan. Interesdunek deitu: 664 303 528.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1**

**Areatza Musik & Brewing Musika eta Kultura Elkarteak emondako 2023ko kamiseta bana.**

Saioa Larrea (Areatza)  
Ziortza Etxebarria (Zeanuri)



**2**

**Kristonak taldeak emondako materiala.**

Kubulu Euskaltegia (Igorre)  
Kepa Intxausti (Igorre)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**BIZARGINAK**  
«Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu»  
«Baxarra egin eta bukunduten dogu»  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**ASEGURUAK: ZUZENBIDE**  
AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Dia % PEDRO AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
[zekutzejatetxea@hotmail.com](mailto:zekutzejatetxea@hotmail.com)

**begitu**  
**eus**



**IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!**

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)



**BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!**

**2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
 Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€

\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

[begitu.eus](http://begitu.eus) 

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.